

## IRLAK

**ARLOA:** Musika

**MAILA:** Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailak

**DENBORALIZAZIOA:** 5 ordu, 30 minutu

### HELBURU OROKORRAK

- Euskarazko IKT baliabideei esker, ikasleen konpetentzia musikala garatzea.
- Herrialde ezberdinetako kultura ezagutzea.

### HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Zenbait irlletako dantza, abesti, berezitasun eta bitxikeria batzuk ikastea.
- Berdinen arteko komunikazioa bultzatzea.
- Aurkezpen-gaitasunak garatzea.
- Taldeko lana sustatzea.

### JARDUEREN SEKUENTZIA

#### A) HASIERAKO FASEA

1. JARDUERA: Kontinentea ezagutzen

#### B) GARAPEN-FASEA

2. JARDUERA: Herrialdeak ezagutzen
3. JARDUERA: Madagaskar
4. JARDUERA: Trinidad eta Tobago
5. JARDUERA: Papua Ginea Berria

#### C) AMAIERAKO FASEA

6. JARDUERA: Grabaketa

## A) HASIERAKO FASEA

### 1. JARDUERA: Irlak ezagutzen

<b>Denbormalizazioa</b>	45 minutu
<b>Materiala</b>	Arbela, idazteko materiala (boligrafoa, papera, ordenagailua...), informazioa bilatzeko materiala (liburuak, entziklopedia, Internetarako sarbidea duen ordenagailua...)
<b>Helburuak</b>	Landuko dituzten irlak ezagutzea.

Hasierako fase honetan, landu beharreko irlak ezagutuko dituzte ikasleek. Hasteko eta behin, ikasle bakoitzak irlei buruz dakiena kontatuko du, izan irlaren batean egon direlako, interesatzen zaielako, nonbait entzun dutelako, pelikula batean ikusi dutelako edo dena delakoagatik. Kontakizun guztiak izango dira baliozkoak.

Ondoren, ikasleak binaka jarriko dira eta galdera batzuei erantzun beharko diete. Amaitzeko, landuko diren herrialdeak mapan kokatu beharko dituzte. Azken ariketa hau binaka egin daiteke edo arbel digitala egonez gero, denon artean egin daiteke ariketa.

## B) GARAPEN-FASEA

### 2. JARDUERA: Herrialdeak ezagutzen

<b>Denbormalizazioa</b>	Ordu bat
<b>Materiala</b>	Arbela, idazteko materiala (boligrafoa, papera, ordenagailua...), informazioa bilatzeko materiala (liburuak, entziklopedia, Internetarako sarbidea duen ordenagailua...)
<b>Helburuak</b>	Landuko dituzten herrialdeak ezagutzea.

Jarduera honetan, talde txikitan jarriko dira ikasleak eta talde bakoitzari herrialde bat esleituko zaio. Ondoren, talde bakoitzak egokitu zaion herrialdeari buruzko informazio hau bilatu beharko du gutxienez:

- Non dago kokatuta?
- Nola du izena bere kostak?
- Zenbat biztanle ditu?
- Zein da jaki ohikoena?

Galdera gehiagori erantzuteko askatasuna emango zaie ikasleei. Ondoren, berriro taldekatzeak egingo dira; horrela, talde bakoitzean herrialde bakoitzeko pertsona bat egongo da gainerako kideei herrialdea aurkeztu ahalko diena.

### 3. JARDUERA: Madagaskar

<b>Denboralizazioa</b>	Ordu bat
<b>Materiala</b>	Abestia eta dantza ikasteko bideoa
<b>Helburuak</b>	Madagaskarko abesti eta dagokion dantza ikastea.

Madagaskarko abestiak Matusha Lupamusha izeneko mutiko baten istorioa kontatzen du. Egunero eskolara oinez joaten da oihanak eta basoak zeharkatuz, eta bertako animalia arriskutsuek ipurdian kosk ez egiteko bere burua babestu behar izaten du. Matushak beldurra duenean, zuhaitzetako tximinoei hots egiten die. Ikasleek bertako abestia eta dantza ikasi beharko dituzte.

### 4. JARDUERA: Trinidad eta Tobago

<b>Denboralizazioa</b>	Ordu bat
<b>Materiala</b>	Orri txuria, margoak, arkatza, abestia ikasteko bideoa
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gutuna idazten ikastea.</li> <li>• Abesti bat ikastea.</li> </ul>

Trinidad eta Tobagotik eskutitza bidali beharko dute ikasleek etxera. Bertan, etxekoei kontatu nahi dieten zerbait jarriko dute, idatzita edo marraztuta. Eta beste aldean, Trinidad eta Tobagoko paisaia edo gustuko leku bat marraztu beharko dute. Ondoren, abestia ikasi

beharko dute; galdera-erantzun bezala abestuko dute. Horretarako, bi taldetan banatuko dira: talde batek galdera egingo du eta besteak, erantzuna abestuko du.

### 5. JARDUERA: Papua Ginea Berria

<b>Denbormalizazioa</b>	Ordu bat
<b>Materiala</b>	Loredun lepokoa, dantza ikasteko bideoa
<b>Helburuak</b>	Dantza bat ikastea.

Itzasoko olatuekin batera Papua Ginea Berrira iritsi gara. Bertan, abesti gozo batekin dantza egin beharko dute ikasleek, alde batera eta bestera olatuen kulunkei jarraituz, biribilean jarrita eta bertako koloretako lepokoak jantzita.

## C) AMAIERAKO FASEA

### 6. JARDUERA

<b>Denbormalizazioa</b>	45 minutu
<b>Materiala</b>	Arbela, idazteko materiala (boligrafoa, papera, ordenagailua...), informazioa bilatzeko materiala (liburuak, entziklopedia, Internetarako sarbidea duen ordenagailua...)
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Ahozotasuna garatzea.</li> <li>● Herrialde ezberdinak ezagutzea.</li> </ul>

Azken ariketa honen bidez, kontinente honetan landu diren herrialdeetatik gehiena zein gustatu zaien aukeratzeko eta hautua arrazoitzeko eskatuko zaio ikasle bakoitzari. Hori, talde handian egingo dute, iritziak partekatze eta baita ahozotasuna lantzeko ere.

Ondoren, ezagutu nahiko lukeen leku bati buruzko informazioa aurkitu beharko du ikasle bakoitzak. Horretarako, ondorengo galdera hauetaz osatutako gidalerroa eskainiko zaie:

- Non dago kokatuta?
- Kostarik ba al du?



- Zergatik ezagutu nahi duzu?

Ondoren, binaka jarriko dira eta aukeratutako herrialdea elkarri aurkeztuko diote.